

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 2895

*AGINDUA, 2019ko ekainaren 10ekoa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez xedatzen baita Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko behin-behineko langile bat dagoen lanpostutik kentzea.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.2 artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.2 artikuluan jasotako aurreikuspenak aplikatzeko, kargu-uztea formalizatzen dut. Segidan dago zehazturik.

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Miren Irune Muguruza Mendarte kentzea Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailean duen aholkulari-kargutik (kodea: 5263; dotazioa: 1), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-uzteak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio agindu hau eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten den egunetik hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 10a.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua,  
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.